

# Gorputza, gogoaren eduki

(The body, content of the soul)

Apodaka Ostaikoetxea, Eduardo

UPV/EHU. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak. Gizarte

Psikologia Saila. Sarriena, z/g. 48940 Leioa

BIBLID [1137-439X (2005), 27; 239-249]

Jaso: 03.11.13

Onartu: 05.03.11

---

*Gorputza gogoaren edukiontzi eta euskarri bezala irudikatu da Mendebaldean. Gaur, nortasun ahulen garai honetan, Gizarte Psikologian niaren hausturaz hitz egiten delarik, gorputzaren irudia baliatzen da ni batuari eusteko. Nortasun pertsonalaren anabasan gogoak (hots, gizarteak eta kulturak) gorputza zelan eratzen duen erakutsi nahi dugu, gogoia eta gorputzaren arteko dialektika hutsalari uko eginez biak subjektibazioaren alderdi integratutzat jotzen dituen eredu batean.*

*Giltza-Hitzak: Gorputza. Ni anizkuna. Subjektuaren desagitea. Subjektibazioa. Ni psikosomati-koaren fenomenologia.*

*En Occidente el cuerpo ha sido representado como receptáculo y soporte del espíritu. Hoy, en este tiempo de identidades débiles, cuando en la Psicología Social se habla de la ruptura del yo, se utiliza la figura corporal para mantener el yo unido. Pretendemos mostrar cómo, en el caos de las identidades personales, el espíritu (esto es, la sociedad y la cultura) constituye el cuerpo, en un modelo que dejando de lado la dialéctica huera del cuerpo y el espíritu, considera ambos dos como un aspecto integrado de la subjetivización.*

*Palabras Clave: Cuerpo. Yo plural. Desintegración del sujeto. Subjetivización. Fenomenología del yo psicósomático.*

*En Occident, le corps a été représenté comme le réceptacle et le support de l'esprit. Aujourd'hui, en cette époque d'identités faibles, lorsque l'on parle de la rupture du moi en Psychologie Sociale, on utilise la figure corporelle pour maintenir le moi uni. Nous prétendons montrer comment, dans le chaos des identités personnelles, l'esprit (done, le société et le culture) constitue le corps, dans un modèle qui, en laissant de côté la dialectique hors du corps et de l'esprit, considère les deux comme un aspect intégré de la subjectivisation.*

*Mots Clés: Corps. Moi pluriel. Désintégration du sujet. Subjectivisation. Phénoménologie du moi psychosomatique.*

Komunikazio honetan gorputzari buruzko gogoeta baten berri eman nahi dugu, Gizarte Psikologiaren azken ekarpenetatik egin gogoeta hain zuzen ere. Gorputza gogoaren edukiontzia bezala irudikatu da Mendebaldeko tradizioan eta neurri handi batean zientzietan ere. Edukiontzia izateaz gain gorputza gogoaren euskarria izan da. Gogoak menperatu eta bideratu behar zuen euskarria. Menperatze borroka hau hezkuntza edo zibilizazio borroka izan da, nork bere burua erabiltzeko bidea baina menperagaitz hau menpera ekar zezan borroka, nork bere borronteak bere burua sor zezan ahalegina.

Horrenbestez, gorputza eta gogoaren tira-bira hau gizakiaren izaeraz eta bilakaeraz hainbat azalbide eman behar zuen eragiletzat jo dute zientzialari eta pentsalari askok. Gaur, nortasun ahulen garaian bizi omen garen honetan, ahulezi eta ziurgabetasun honi aurre egiteko irudikapen zahar honi eusteko tentazioa zabaltzeko da bestelako izenez eta eraz: eragin genetiko delako, gorputz batasuna delako... kulturaren eragina bigarren mailan uzteko edo apaltzeko erabili dira. Gizarte Psikologian niaren hausturaz, zatiduraz hitz egiten delarik, gorputzaren irudia baliatzen da nolabaiteko ni batua berreskuratzearren.

Luze hitz egin ahal genuke pertsonaren "desegiteaz" eta gai honek psikologia postmodernoko duen betekizunaz. Esan, esan daiteke desegite hau diskurtsotik abiatuta ere, norberaren esperientzia bihurtu dela. Gertakari honen teorikoek hainbat eta hainbat kontzeptu edo termino proposatu dituzte "pertsonaren desegitearen" berri ematearren: hautazko norbanakotasuna (Jameson, 1984), harremanezko pertsona (Gergen, 1992), niaren heteroglosia, ni proteikoa, aurpegi askotako pertsona, nortasun inauteria...

Gizarte postindustrialan edo garai postmodernotan gertatu omen da hau: pertsona izateko, subjektua izateko bide berriak ezarri dira. Zertan berri? Gergen- en tesi ezagunari jarraituz, gure inguruko gizarte molde honetan erruz handitu dira besteekiko harremanak, ugaltu eta aniztu egin omen dira, beraz, gizartean nor garen ere konplexuago egin da, nork bere nortasuna eratzeko guneak eta aukerak ireki dira. Muga asko egonda ere, honek nortasunen aukera zabaltzeko du, baina baita nor asko izateko beharrezana ere, kontua da, subjektuak lan handiagoa egin behar duela nor den pentsatzen, erabakitzen eta gauzatzen.

Azal dezadan: gizakien nortasuna gizartean nor diren zehazteko prozesua da, bestekikoan nor diren, besteengandik zertan bereizten eta besteengana zelan elkartzen diren. Norberaren nortasuna gizarte harremanen emaitza da. "Bere burua" bera ere, gizarte harremanen edo elkarrekintzen alderdi bat da. Honela izaki, bada, gizartea nolakoa, gizartekideak halakoak: harreman, lotura eta elkarrekintza askotako gizarteek gizaki plastikoak behar dituzte, hau da, bere gizarteko nor-izana egokitzeke erraztasuna daukaten gizakiak, bere burua aldarazteko gai direnak. Pertsona "pastiche" honek, gizarte-kameleoi honek, zatiak bilduz eta elkartuz nortasuna eratzen du, azkeneko emaitzaz inolako kezkarik gabe, unean uneko nortasun egokia izaten du ardura (Elster, 1986). Harremanezko nia: gizartea zitu bizian aldatzen ari denez, subjektuak ezin du nortasun egonkorra izan, osterantzean, egokieran norberri behar du. Beraz, gizarte harremanen polimorfismoak pertsonalitate amorfa eskatzen du ordainean.

Fenomenoaren sustraiak gizarte aldaketan jarri duen tesi hau osatzeko, diskurtsotik abiatzen den tesia aipatu behar nuke. Pertsona eratzeko molde diskurtsiboak aldatu egin dira bai, baina sustraia subjektu modernoari egin kritikan aurkituko da. Kritikaren emaitzak labur bilduz, “norbanako nartzisistaren” irudiarekin egiten dugu topo. Gergen-ek esan legez: zergatik lotu geure burua nortasun edo izaera bakar bati? Zergatik engaiatu nortasun-gai batekin? Zergatik ez lotura finkorik gabeko ni berri bat, ni ahul, aldakor, lasai eta laxatua?

Nortasun nartzisista, Modernitatearen subjektuaren autonomia eta beregain-tasuna muturrera eramatearen ondorioa da. Modernitatean, subjektua autonomia eta berezitasunaren inguruan eraiki da: nor pertsona heldua eta osoa izan zedin, besteetatik bereizita, bere buruaren eragile nagusia behar zuen (honi “izaera” deitu diogu, hots, nor bere izaera berezia eta berariazkoa izatea). Baina, esan bezala, gaur subjektuaren autonomia eta bereizitasuna aldarrikatzen jarraitzen bada ere, ez da “nortasun bakarra” eratzeko, alderantziz, gaur autonomo eta berezia izatea, nork bere nahikara eta unean uneko egokieraz aritzea besterik ez da.

Euskarri ontologiko gogorak erazten joan omen da subjektua: euskarri politikoak, sozialak, erlijiosoak, familiarrak... eta azken euskarri, azken zama ontologikoa nortasunaren diskurtsoa bera izan da. Zer dela eta “nortasuna” eraiki beharra, zer dela eta “nor” bat izan beharra? Nor bere buruaren jabe baldin bada, bere gain badin bada, nahi duena nahi duen unean izateko omen da.

Modernitate osteko garaia, modernitate azken honetan, nortasuna merkatugai eta kontsumogai bilakatu da. Kontsumoaren legeak agitzen du hemen: zenbat eta gehiago, ahalik eta berrien, ez luzerako, ez engaiatzeko... Eta merkatu guztian bezala, erosteko ahalmenak agintzen du. Izan ere, nortasun merkatu honetan ere muga eta hesi asko daude, pribilegiatuak eta baztertuak banatzen dituzten mugak.

Hitz gutxitan, pertsona modernoak gizartea eta bizimoduak azkar eta larriki aldatzen ari ziren bitartean bere nortasunari, bere buruari eusten ahal zion giza-kia omen zen, egoera txarrean ere mundu orekatua sortzeko gai zena. Erabat aldatzen ari zen mundu batean bere burua izan zitekeen euskarria. Pertsona postmodernoak, berriz, mundua aldatzen den neurrian aldatu behar duen pertsona da. Moldakorra eta aldakorra. Zeri eutsi ahal dio?

Gizarte Psikologiak ere neurri batean edo bestean jaso egin du “subjektuaren desegiteren ekarria.” Testuliburuetan argi ikusi ahal da, Mead-en lanetik (1934) eta Gergen (1985) edo Stryker-en (1985) lanetara, niaren edo selfaren desegitea onartu egin dela esan dezakegu. Baina ez guztiz onartu, pertsonaren nortasun-batasunaren lorpena zalantzan jarri arren, batasun hori beharrezkotzat jotzen baita.

Stryker-en interakzionismo estrukturallean, esaterako, selfa nortasun askoren atondura hierarkizatua da. Nortasun horiek elkarrekintzetan subjektuak hartu eta hierarkia batean atondu dituen rolak dira. Autokontzeptua hierarkia hori da. Bistan da, pertsonaren hautamena ez dela guztiz zabala, gizartean negoziatu

beharko duela bere hierarkia hori gauzatzeko eta bere nortasun gai horiei berak eman nahi dien balioa. Beraz, autokontzeptua garatzea zailagoa bada ere, behar-beharrezkoa dugu “autokontzeptu koherente edo hierarkizatua.” Horren bestez, ez da arraroa autokontzeptuaren gestioa koherentziaren eta batasunaren inguruan ezartzea. Ildo honetakoak dira Epstein-en autoidentifikazioa (1978), Mackie-ren self-concept delakoa (1986) eta zehatzago, Elster-en “egonomiak” edo askotariko nia gestioatzeko moduak (1997). Guztiak, ni batu eta osotu baten aldera ari dira.

Eta hemen dugu jorratu nahi dudan auziaren gakoa: egile batzuen ustez, ni posmodernoaren euskarria gorputza bera da. Gorputzak eman ahal dio subjektu anizkun honi batasunik. Eta hortik gorputzaren gurtze berriak. Hala ere, batzuek “gorputzaren gestioari” erreparatu diote: gorputza ere hautazko ni horren isla delakoan. Alberto Carreras-en aipu bat aldatu dut hona, adibide gisa:

El problema de la unidad es tanto mayor si, como Gergen y otros muchos constructivistas sociales, olvidamos la continuidad de *nuestro organismo biológico y su consecuente conciencia corporal, uno de los engranajes más importantes de nuestra autoimagen y sostén* de todos los demás rasgos de personalidad. Pues nuestro cuerpo, junto con la capacidad de nuestro cerebro para evocar situaciones y vivencias que han tenido lugar en tiempos diferentes son los pilares de nuestra unidad mental. El problema ahora sería el probar que a cada organismo le corresponde un self o una autoimagen más o menos estructurada. Y Dennet nos recuerda que esto no es así en los casos de extrema patología. No hay correspondencia entre un cuerpo y una personalidad pues se dan organismo con personalidades duales o múltiples... nuestro yo mental es una construcción realizada por un constructor tan poco fiable como es nuestra conciencia.

Zaragozako irakasle honen hitzetan ondo sumatu ahal da gorputza gizakia-  
ren (nor)banakotasunaren euskarri ontologia delako ustea. Ustea eta nahia.

Uste honen oinarrian, gorputza pertsonalitatearekin berdintzeko joera dugu: gorputza pertsona baten eta bakar baten edukiontzia omen da. Ni fisikoari ni izpiritual edo psikiko bakar bat omen dagokio. Hauxe da pertsona heldu eta osasuntsu baten ezaugarria. Gorputza hainbat nortasunen edukiontzia izan daitekeen arren, azkenean banakotasuna, bakoitzasuna eta, zergatik ez, osotasunaren (osasunaren) bermea da.

Iritzi hauek dira komunikazio honek zalantzan jarri nahi dituenak. Hartatik, eman izenburua: gorputza gogoaren edukiontzia barik, gogoaren eduki bat besterik ez da. Azalduko dut “gogo” hitzaz zer ulertzen dudan, baina lehenago argitu nahi nuke nire ustez onartzekoa dela pertsona baino lehenago badirela hainbat atonkera organiko, berauek bideratzen dutela pertsonaren nortasuna baina ez dira ezer egikaritu barik, hau da, gizarte ingurumen batean hartu eta garatu barik eta pertsonaren historian, bera agertu eta sortu ahala, gauzatu barik.

Bestelako hitzez, gorputza bera ere, ontogenesia agintzen duen jarduera psikogenetikoaren emaitza da. Aurrerago gogoratuko dudan bezala, jarduera hau

ingurumenaren eta organoen atonkeren arteko sinergia da, sinergia horretatik giza pertsona sortzen da, nahikunde eta auto-ezagutza duen izaki organiko bat, buru-sortzailea den izaki organikoa.

## **NORK BERE BURUAREN HERMENEUTIKA: PSIKEA**

Azter dezadan, bada, sinergia horren lehenengo alderdia: psikea deritzoguna. Psikea jarduera bat da, nork bere burua eraikitzean datzan jarduera. Hauxe da, Sennet-en iritzia:

Psikea, izena barik, aditza da; psikea ez da gauza bat (...) Ideia hau Aristotelek De Animan proposatutakoaren jarraipena da: psikea mugiarazten eta biziartzten duen eragilea da... jarduera horren edukia kategoria hermeneutikoak dira, nork bere burua ulertzeko kategoriak (...) Psikea, senen eta beharriaren objektu edo edukiontzia baino areago, gizarte-harremanen arabera taxututako jarduera bat da.

Bai, nork bere burua ulertzeko ahalegina gizarte-harremanen arabera taxutu behar den jarduera da; psikea zerbait mugiaraztea, biziartztea omen da, baina zer? Gorputza ote?

Pentsamendu klasikoaren burubide arrunta da izpiritua (edo Sennet-en jarduera hermeneutikoa) materia bizigabea biztu egiten duen eragiletzat jotzea; ari-mak gorputza biziartzten bide du. Aristotelismoaren eskema zaharra: materia den gorputza eta forma den gogo. Gorputza edukiontzi bizigabea eta itxuragabea, gogo eragile eta biziartzte, materia eraz taxutzen duen eratzailea.

Formakuntza ideia honetatik abiatuko da aurkezten dugun gogoeta: gogoak gorputza eratzen duelakoarekin ados, baina eratze hori elkarreraginean garatutako prozesua dela ahaztu barik eta, batez ere, ahaztu barik gogo ez dela gorputzaren barruan dagoen zerbait, baizik eta gorputza (organismoa edo atonkera organikoak) eratzen duen gizarteko jarduera (psikikoa).


Gorputza, gorputzak edo gorputz egoerak nork bere buruaz egin behar duen jarduera hermeneutikoaren emariak dira. Jarduera hau, jakina, jarduera izpirituala edo eidetikoa gabe, norbait izaten den harremanetan egin behar duen egokitze eta moldatze lana da: ingurumen naturalekiko harremanak, jendearekiko harreman sozialak, nork bere buruarekiko harreman psikiko eta fisikoak.

Modernitatean ikuspegi bikoitz batetik jorratu da gorputza: batetik menperatu beharreko materia kaotikoa, senetz eta grinez osatutako materia arriskutsua, baina bestetik, gorputza euskarri materiala, objektiboa, positiboa, argia eta behagarria izan da.

Bai, Modernitatea, munduan diharduen gorputz behagarri eta objektibotik bere burua eta mundua bera antolatu behar duen subjektu eragilerak kulunkatu da (psikologian ondo ezaguna da behaviorismotik kognitibismora doan aldea). Hau da, gutxi asko Subjektuaren Diskurtsoaren eragina. Ez dugu hemen diskur-

tso hau aztertzeko astirik bai, oster, diskurtsoa eraitsi nahi izan dutenek ezarri duten ondorio bat arakatzeko: diskurtso horrek esanaren kontra, ez dago pertsona segurtatzen duen inolako banakotasunik. Pertsona euskarri ontologikorik gabe, besteekiko harremanetan bere burua garatu behar duen izaki berme-gabea da.

Ezagun da, bestalde, Subjektuaren Diskurtsoak gorputza eta gogoia elkarretatik banandu zituela (gogoratu Descartes). Gaur, diskurtso hori gainditu beharrean gaudenez, ezin da ezarri “jendarteko jarduera den pertsonaz” harago ez gogo abstrakturik, ez arima pertsonalik, ez barneko batasun psikikorik, ezta “gorputzik” ere, hau da, ezta organismo biologiko edo fisiologikorik ere. Norberaren gorputza gizarte-irudikapen batzuen menara bizi egiten da. Irudikapen horiek norbanakotze praktikak gidatzen dituzte, hots, norberaren gorputza norberaren “heltze” prozesuan egina eta eratua da. Prozesu horren bidez, hainbat atonkera organiko eta ingurumenekoak gizaki edo pertsona bilakatuko dira. Ikus dezagun:



Modernitatean nagusi izan den gorputzari buruzko diskurtsoa “ingurumen zientziek” (ekologiak bezala, hala antropologiak edo soziologiak) eraldatu dute. Gaur uste arrunta da gorputza atonkera edo dispozizio organiko eta ingurumenekoen arteko elkarrekintzaren emaitza dela.

Zer da “ingurumena” giza gorputzaren kasuan? Geroago azalduko dudan moduan, ingurumena organismo askoren arteko harreman multzo eta sarea da, kasuon organismo horiek pertsonak dira. Gizakia, bere alderdi organikoenean ere, gizartera sortzen da, edo bestelako hitzez “gorputzarte” batera. Hala ere, axola zaigun gaien xeheago aztertu behar da hau. Gogoia edo izpiritua ezin da euskarri fisikoarekin berdindu: ez gorputzarekin, ez sistema neuralarekin ere. Zalantzarik gabe, jarduera psikikoak fisikoak dira: deseatu, apeta izan, gorrotatu, irudikatu, pentsatu, gogoratu... Gogoarenak bezalaxe, gorputzaren jarduerak dira. Are gehiago, atonkera fisikoak garatuz, eta garatzen diren neurrian (hortaz, ingurumen edo gorputzarte egokia duten neurrian), agertuko dira gogoaren jardunak, gogoia bera ere, nonbait (gogoratu Mead-ek keinuaz esana).

Beraz, hasiera batean “gogoaren jarduerak” gorputzaren jarduerak baino ez dira; baina giza ingurumenak eta “giza atonkera organikoek” elkarri eraginez, psikea sortzen dute. Eta nire ustez, psikea ezin da, inolaz ere, euskarri fisikoarekin nahastu behar; gorputzetik harago baitoa, beste izaera batekoa baita.

Psikogenesiaren hasierako pausuak fisikoak izanda ere, ondoren, norberaren historia hasten da. Eta arrazoi asko daude pentsatzeko idiogenesia kasu bakoi-tzean berezia eta desberdina dela. Giza idiogenesian pertsona sortzen da: hasieran hainbat eta hainbat “atonkera” baino ez zeuden, batzuk organikoak, beste-zuk ingurukoak, guztiak izan daitekeena egituratzeko prest. Azkenean, atonkera horiek egituratuta daude, hainbat egituratan eta geure irudikoz “pertsona” bat egituratuz. Eta bakarrik, pertsona den unetik (organismoak autonomia fisiko eta psikikoa lortu duen unetik) zilegi da guztiz “gaitasun hutsa” zena “aurreatonkerak” zirela esatea. Ez dago determinismo mekanikorik onartu beharrik: pertsona izatea, organismoaren idiogenesi fisiko, neural, psikiko, soziala... prozesu ireki, historiko, errepikaezina da. Baina prozesuaz zertxobait gehiago esan behar dut argi uzteko gorputza ez dela “eratzailera” “eratua” baizik, jarduera psikikoak era-tua, hain zuzen ere, eta jarduera psikiko guztia, ordea, jende-arteko jarduera dela:

**Aurretiko atonkera egituratzaileak**, bai organikoak, bai ingurumenekoak, “subjektibatu” edo “gorputzu” egin behar dira; honela sortuko da pertsona, bai-na subjektibaturik eta gorputzurik daudenean egitura egituratuak dira, zalantza gabeko zentzua dute, zentzu hori norberaren eta mundu familiarraren zentzua delako. Hala ere, pertsona ez da atonkera horien batura hutsa, pertsona bilakatzearen prozesua autoerakuntza prozesua delako (hots, autopoietikoa delako): heltze une batetik aurrera, bai organikoki, bai psikikoki, organismoa da bere era-kuntzaren eragilea.

**Aurreatonkeren elkarreragina**: Aurreatonkerak, esan bezala, elkarri eragiten ari dira. Elkarreragin hau irudiaren alboetako geziek erakusten digute: batetik,

ezkerreko geziak adierazi nahi du gorputz-aurreatonkerak diskurtsoen arabera egituratzen direla; eskumakoak, berriz, gizarte-aurreatonkerak psikismoan gauzatzen direla (aztura, ohitura, praktika... bihurturik).

Irudi erdian prozesu hauek seinalatu dira: “gizartearen aurretiko atonkerak gorputzu” eta “aurretiko atonkera organikoak gizarteratu”, Mead-en eta Freud-en ekarpenak, hurrenez hurren. Beraz, norberak, bere burua garatu ahala, gizarte eta ingurumeneko atonkerak gorputzu egingo ditu (bere gorputza atontzeko bere egingo ditu) eta organismoaren atonkerak gizarteratuko ditu (gizartean aritzeko egokituko ditu). Prozesuaren fruitu dinamiko eta aldakorra, “gorputza eta gogoa” deritzeguneren batasuna izango da (jakina da, aldakortasuna ez dela erabatekoa, pertsona “izateko modua” finkatu behar duela norbait izatekotan, beti ere, gizarte-eskakizunen arabera).

Gorputza, horrenbestez, ez da euskarria, eutsia eta eratu bezainbat. Pertsonaren gizarte-erakuntzaren alderdi bat bai ordea, baina ez erraz bereizi ahal den alderdia. Alderantziz, pentsatzekoa da, gorputza norbanakotzearen bide soziala eta kulturala dela eta ez naturala. Ideia hau nabarmentzeko A eta B estadioak bereizi ditugu irudian.

**Gorputzartekotasuna:** gorputzartekotasun primitibo eta bereizigabe batetik (gorputz bereizirik gabeko anabasa libidinala) araututako gorputzartekotasun zibilizatu eta sozial batera (aldendutako eta bereizitako gorputzen arteko trukeak eta harremanak).

Irudian Merleau-Ponty-ren “gorputzartekotasuna” aipatu dut. Honen ustez, gorputz banakoa gorputzartekotik sortzen da, artekotasun horretatik banakatu eta bereiziz. Hasierako bereizgabetasun organikotik, hasierako organismo sortzailetik etorkizuneko haurra hasiko da eratzten, bere burua ezagutzen duen neurrian, bere buruz jabetzen den neurrian.

Lacan-en edo Benveniste-ren ustez, ni bilakatzeko prozesua hizkuntzaren eremu sinbolikoan egikaritzen da. Eremu erreala anabasa libidinala delarik, gorputz arteko bereizketa atonkera organikoen sakabanaketa “ispiluko irudi sinbolikoaren bitartez” egingo da. Nia, errealean ematen ez den atonkera askoren batasun sinbolikoa, irudizkoa da; erreala eta sinbolikoaren arteko urradura da niaren sorbidea (spaltung dio Lacan-ek alemaneraz).

Hasieran ikusten genuen bezala, anabasaren batasun mugagabe horretatik bereiziz eta bananduz “pertsona” sortuko dela erraz onartzen da gaur psikeari dagokionez. Nekezagoa da, antza, gorputzari buruz gauza bera onartzea.

Horregatik azpimarratu nahi izan dut irudian gorputzarte primitiboa hasierako egoera izanik, norberaren gorputza besteengandik banatzetik, itxura propio edo berezia lortuz eta eratu sortzen dela. Prozesua hau, esan beharrik ez dago, jendartean ematen den prozesua da: organismoaren atonkerak gizartearen beharretara egokitzea, hauxe da, “heztea.” Eta hezkuntza Foucault-ek erakutsi bezala, berariaz gogoa diziplinatzekoa denean ere, gorputza menperatze eta hez-



te hutsa izaten da. Gorputzaren bereizketa (eta “norbanako somatikoaren” sorrera) ez da mugatzen senak menperatzera edo, oro har, organismoaren atonkerak gizarteratzera, ezta gizarte-atonkerak gorputzera ere. Harago doa, nora eta gorputz artera.

Gorputz bereziak (norbanako somatikoak), gainontzeko gorputzekiko harremanak araututa behar ditu, bere bereiztasuna ez galtzeko moduan. Atonkera organikoen norbanakotzea ez da behin betikoa, atzera joan daitekeen prozesua da beraz. Horregatik, gorputzartekotasuna zorrotz arautu behar du gizarte-sistemak.

Foucault-ek gorputz arteko harremanen arautzearen historia eskaini zigun sexuaren historian. Antza denez, pultsio eta senen hezkuntzak etengabeko eta gizarteko kontrol estua behar du, bestela, mugak ahultzen direnean, gorputzaren erakuntza kolokan jartzen da. Honek ondo erakusten digu zein den gorputzartekotasunaren indarra eta zein gorputza izan dadin behar den irudikatze eta eratzeko ahalegina. Gorago esan bezala, gorputza (norbanakoa bera bezala) domeinu sinbolikoan sortzen da.

Gehiago esan daiteke gorputz arteko harremanen arau-sistema hauen gainean: hasteko, gorputz arteko harremanak arautzeko sistemak gorputzen hazketa eta ugalketa segurtatzen du (hauxe omen da, naturan duen betekizuna?), baina honez gain, kontuan hartu behar dugu gizarte-sistema zenbat eta konplexuagoa izan, orduan eta konplexuagoa ere gorputz arteko harremanak, kontaktuak, trukeak eta abar arautzeko sistema. Halaber, handiagoa, nork bere burua kontrol dezan beharra, eta, ondorioz, zorrotzago eta trinkoagoa autodiziplina. Baina, “barne-kontrola” deritzogun hau ez da kanpo-harremanak (hots, gorputz artekoa) antolatzeko bide bat baizik. Barne-kontrolak norberaren gorputzaren gaineko kontzientzia areagotzen du: zorrozkeria eta puritanismoa, biak omen dira gorputz eta gogoaren arteko urradura gauzatzeko bide gotorrak, baina biak ere norberaren gorputzaren gaineko kontzientzia tematsuak. Ez dago, hortaz, gorputzaren bazterketarik, ezta nor bere gorputzetik aldentzerik ere, aitzitik, beste gorputzengandiko baztertze eta aldentzea da.

Norberaren gorputz autokontrolatua, “anabasa libidinaletik garbi” atera den gorputz isolatu hau, nork bere buruaz egin hermeneutika batean eraiki da: aurre-atonkera organikoak modu jakin batera eta baliabide praktiko zein diskurtsiboak interpretatzeko jarduera; jarduera praktiko eta diskurtsibo hauek esan bezala, gizarte eta ingurumeneko aurreatonkerak dira. Beraz, aldi berean ari dira erakitzen psikismoa eta gorputza, biak elkarri eraginez, kanpo edo aurreko atonkera horien etengabeko elkarrekinean.

Labur bilduz, batetik aurreko atonkera organikoak ditugu (orain herentzia genetikoa deritzona, baina bestela ikusita, “harreman somatikoaren sarea”) eta bestetik, atonkera horiek agertzen diren espazio edo ingurumen bat, gizakien kasuan “gizartea” (hau, beraz, kulturaren aldea: azturak, irudikapenak, praktikak, arauak...). Agertu eta elkarri eragiten hasiko dira eta elkarreraginezko prozesu hau da, hain zuzen ere, pertsona sortzearen prozesua, baita gizabanako

somatiko eta sinboliko horretan eta horren bidez gizataldearen gorputza berre-raikitze prozesua ere.

Ekarri nahi izan dudan ikuspegi-aldaketa laburtzeko, esan daiteke “niaren ontologia” batetik “ni psikosomatiko fenomenologia” batera aldatu dugula begirada; hau da, banakotasuna Gogoari edo Gorputzari deitson galdetzetik, bizi izandako subjektibitate fisiko eta psikikoa bere ingurumeneko baldintza eta aurreatonkera egituratzaileekiko harremanetan kokatzera (hitz batez, ekoizpen edo sorkuntza psikogenetikoaren baldintzetara).

Dugun euskarri ontologiko bakarra prozesua bera da, arrakasta izanez gero, “pertsona” deritzogun egintza edo jarduera “autoeratzzaileen” multzoa agertuko duen prozesua.

### **GORPUTZARI BEGIRA: BEGIRADA ALDAKETARI BURUZKO ZENBAIT OHAR**

Esandako guztian gorputza gizarte-erakuntza baten ondorioa dela adierazi nahi izan dut, baina tartean gogoaren edo “zientifikoagoa” esanda norberaren psikea sartuta. Aise onar daiteke gorputza “interpretatu” egiten dugula, baina gorputza biologiaren altzokoa dela ahaztu barik, gorputza, azken buruan, berezkoa dela.

Berezkotasun hau noraino hel daitekeen ikusi dugu arestian emandako aipu horretan. Horregatik, ikuspegi edo begirada aldatu beharra dagoela aldarrikatu nahia.

Gorputzak behatzen ditugunean, zer ari gara ikusten? Duda barik, abstrakzio lan ederra egin behar dugu gorputz huts bat ikusteko. Bestela, zelan ez ikusi gorputz horretan bukaezinezko eta gizarte-elkarrekintzazko idiogenesi organiko eta psikikoaren aztarnak eta eraginak?

Ikusten dugun “gorputza”, atonkera organikoak gizarteratzearen eta gizarte-ko atonkerak gorpuztearen ondorioa dela ikusteko berezkotasun guztia erantzi behar diogu. Eta hau egia esan, ez da gauza berria, dagoeneko bide hau urratu duten askoren ekarria baitugu, esaterako:

- Feminismoak gorputza hautemateko kategoria berriak eman dizkigu (Butler, 1990). Feminismoaren diskurtso kritikoa oinarriturik, antropologiak eta psikologiak gorputza desnaturalizatu dute hein handi batean, kategoria eta prozesu sozial, kultural eta historikoen bitartez gorputzaz behar bezalako kontu emateko. Arrazoi menperatzaileak natural, neutro eta unibertsal bihurtu duena, prozesu jakinetara itzuli dute (bidenabar argi dezadan, generoaren gizarte-erakuntza ez dela azaleko kontu bat, behar denean oso-osorik eratzen baita, adibide ezaguna da AEBetan itxuraz hermafrodita jaio direnei ebaki egiten dietela, gorputz-generoa zehazteko).
- Gauza bera esan daiteke homosexualen borrokak eragindako iraulketaz, eta, oro har, arrazoi androzentrikoaren aurka aritu direnen eraginaz.

- Antzeko kontua da arrazarena. Ikasi dugu menperakuntza arrazistan gorputzaren gizarte-erakuntzaren alderdi bat dela. Goiko eskema eta hitzak erabiliz, arrazaz eraturako gorputzean aurreatonkera organiko batzuei zentzu eta balio jakin bat ematen zaizkie, beti ere gizarteko atonkera egitura-zaile batzuen arabera. Honela naturalizatu egiten da, gorputzu egiten da menperakuntza arrazista bera, baita gorputzen bitartez legitimatu ere. Guk kontrako eragiketa egin ahal dugu: arraza-irudikapenaren bidez egituratu den atonkera hori (demagun, azalaren kolorea edo sudurraren tamaina) talde-ezaugarritzat jo beharrean, norberaren ezaugarritzat jo, besterik gabe.
- Patologia psikosomatiko eta psikikoen azterketan ere begirada aldaketa aplikatu ahal da: pertsonalitatearen nahasteak, defizitak eta abar, beste modu batera ulertu ahal dira. Horretarako, patologia bestela definitu eta gizakiaren osoaren ideala (osotasunaren irudikapena) aldatu behar da.

## BIBLIOGRAFIA

- BOURDIEU, P. *Le sens pratique*. Minuit, Paris, 1980.
- BUTLER, J. *Gender Trouble. Feminism and Subversion of Identity*. Routledge: New York, 1990.
- DUMONT, L. *Ensayos sobre el individualismo*. Alianza, Madrid, 1987.
- ELIAS, N. *El proceso de la civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*. F.C.E., México, 1987.
- ELIAS, N. *La sociedad de los individuos*. Península, Barcelona, 1990.
- ELSTER, J. *The Multiple Self*. Cambridge University Press, London, 1986.
- ELSTER, J. *Egonomics*, Gedisa: Barcelona, 1997.
- EPSTEIN, A. L. *Ethos and Identity*, Tavistock: Londres, 1978.
- FOUCAULT, M. *Tecnologías del Yo*. Paidós, Barcelona, 1990.
- GERGEN, K. J. «The social construction of selves». In: K. Yardley & T. Honess (arg.) *Self and Identity: Psychosocial Perspectives*, Wiley & Sons: New York, 1987.
- GERGEN, K. J. *El yo saturado. Dilemas de identidad en el mundo contemporáneo*. Paidós, Barcelona, 1992.
- GIDDENS. *Modernity and Self-Identity*. Stanford University Press, Stanford, 1991.
- MEAD. *Mind, Self and Society*, Chicago: University of Chicago Press, 1934.
- STRYKER, S. "Identity Theory: Developments and Extensions". In: K. Yardley & T. Honess (arg.) *Self and Identity: Psychosocial Perspectives*, Wiley & Sons: New York, 1987.